



EAJ-PNVren 2016ko Batzar Nagusiaren aurkezpena

Osteguna, 2016ko otsailaren 11a

Euzko Alderdi Jeltzaleak otsailaren 13 eta 14an Iruñean, Baluarte Jauregi eta Auditorioan, Batzar Nagusia ospatuko du. EAJ-PNVren Estatutuen arabera, lau urterik behin egin behar da Batzar hau eta egiteko nagusiak izan ohi dira EAJ-PNV hurrengo lau urteotan gidatuko dituen ildo politikoak onartzea eta Euzkadi Buru Batzarraren presidentea eta zortzi burukide aukeratzea. Demokrazia parte hartzaile prozesu luze eta aberasgarriaren amaiera izango da. Batzuek primariekin edo "zirkulu" izenekoekin "bolbora" asmatu izan balute bezala agertzen diren bitartean, EAJ-PNVk hamarkadak daramatza alderdikide guztiei, Uri Erakunde guztiei, Herrialde Erakunde guztietako kideei ahotsa eta boto eskubidea ematen. Batzar Nagusia asteburuan egingo da, baina parte hartze, eztabaida eta erabakitzeke tresneri honek bost hilabete daramatza martxan. Eta, prozesu horretan EAJ-PNVren alderdikide guztiek parte hartu dute.

1. Datuak

Hau da EAJ-PNVk ospatuko duen VII. Batzar Nagusia. Eta, Iruñean egiteko erabakia ez da kasualitateagatik hartu. 1977 urtean Iruñean egin zen Aberri Batzar historiko hura ekarri nahi da gogora. Datorren urtean berrogei urte beteko dira Batzar hartatik. 1977 urtekoa historikoa izan zen, ahaztu ezina. Baina, Iruñea aukeratzearekin batera, 1977ko Batzarra antolatu zuten eta parte hartu zuten emakume eta gizonak omendu eta gogoratu nahi dira. Ordukoa "Batasuna eta Indarra" izan bazen, asteburuko Batzarraren goiburua "Guztiok bat" izango da.

Bizkaitik kanpo egingo den lehen Batzar Nagusia izango da. 1992 eta 1995ekoak Bilboko Arriaga Antzokian egin ziren; 2000, 2004 eta 2007koak Euskalduna Jauregian; eta 2012koa Barakaldoko BECen egin zen.

Ia 700 alderdikide dira (695, hain zuzen) parte hartzera deituak izan diren alderdikideak. Bertan izango dira Alderdiaren 263 Uri Erakundeak.

Boto eskubidea izango duten 467 ordezkari hartuko dute parte. Hauetatik, 368, deitu diren 263 Uri Erakundeetako ordezkari zuzenak izango dira (54 Arabakoak, 122 Bizkaikoak, 62 Gipuzkoakoak, 16 Nafarroakoak, 5 Iparraldekoak eta 4 Euzkadiz (Euskal Herri) kanpokoak).

Gainera, Aberri Batzarra osatzen duten 97 ordezkari egongo dira: 18 dira Arabakoak, 38 Bizkaikoak, 19 Gipuzkoakoak, 3 Iparraldekoak, 15 Nafarroakoak eta 4 Euzkadiz (Euskal Herri) kanpoko Erakundeetakoak).

Horrez gain, 200 batzarkide izango dira hitz egiteko eskubidearekin baina Batzar Nagusian botoa emateko eskubiderik gabe. Hauek izango dira barne kargudunak eta herri kargudunak: EBB, Herrialde Buru Batzarrak, Aberri Epaimahaia, Aberri Berme eta Zaingo Batzordea, Herrialde epaimahaiak, EGIren Aberri Kontseilua, Eusko Jaurilaritza, Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Foru Gobernuak, Nafarroako Parlamentua, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak, Kongresua, Senatua, Europar Parlamentua, udal mailako herri kargudunak eta gonbidatuak.

Azken lau hilabeteotan, EAJ-PNVren alderdikideek 'Batasuna eta Indarra' izenburuko agiria eztabaidatu dute, hain zuzen ere, titulua 1977ko Batzar Nagusi hartatik hartzen du. Uri Erakundeek 381 zuzenketa aurkeztu dizkiote agiri honi eta Herrialde Batzarretan aztertu ondoren, azkenean 199 zuzenketa izango dira Batzar Nagusian eztabaidatuko direnak.

Aldi berean, Uri Erakundeek eta Herrialde Batzarrek EBBren presidentea eta burukideak aukeratzeko proposamenak egin eta bozkatu dituzte.

2. Agenda

Larunbatean, otsailak 13, 'Batasuna eta Indarra' lehen aipatutako agiri hori eztabaidatu eta, egoki jotzen bada, onartuko da. Halaber, Kultura, ekonomia, osasuna, berdintasuna eta ongizate sistema jorratzen dituzten jakinarazpenak irakurri eta banatuko dira. Larunbatean ere, EAJren Estatutuen aldarazpen txikia bozkatuko da. Labur esanda, aldarazpen hau EAJ-PNVren Estatutuak Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Legera egokitzeko egin da. Batzar Nagusia 11:30ean eten egingo da ordu horretan Baluarte jauregitik kanpo, Foruen monumentuaren ondoan, ekitaldi politikoa egingo delako. Arratsaldean Ohiko Aberri Batzarra egingo da.

Igandean, otsailak 14, EBBren presidentea eta zortzi burukideak aukeratzeko dira. Egun horretan herritar guztientzako ekitaldi irekia egingo da 11:30ean Baluartean bertan. Aukeratua izan ondoren, presidente berriak bere lehen hitzaldia eskainiko du.

3. Helburuak

EAJ-PNV Batzar honetara doa bi helburu nagusirekin:

Lehenengo eta behin, oraingoa moduko ziurgabetasun eta aukerez betetako egoeran, proposamen politiko eguneratua eskaintzeko. Hori da, hain zuzen, 'Batasuna eta Indarra' agiriaren helburu nagusia. Oso une garrantzitsuan aurkitzen garelako.

- Eusko Legebiltzarra, Autogobernuari buruzko lantalde barruan, Euskadirentzako eta euskaldun belaunaldi berrientzako Estatus berria eztabaidatzen ari da.

- Nafarroan, aldaketaren Gobernuak, honen barruan EAJ-PNV ere delarik, garai berrietarako atea ireki ditu. Nafar emakume eta gizonak EAEko eta Iparraldeko auzokideei bizkarra emanda biziko ez diren garai berria.

- Hantxe, Iparraldean, abertzaletasunak urrats berriak ematen jarraitzen du, txarrerako aldatzen ari den egoera administratiboan.

- Espainiar estatua krisi instituzional sakonean murgilduta aurkitzen da eta Diputatuen Kongresuan orain arte egon den oreka desagertu eta ziurgabetasun politiko handiko garaia hasi da. Baina, aldi berean, Espainian zerbait aldatu beharra dagoelako ustea ezarri da, behingoz lurralde auziei ekin behar zaielako ustea, hain zuzen, kaxotx artean jartzen den "euskal auziari" eta "catalunyako auziari" alegia.

- Europar Batasunean, errefuxiatuen krisi negargarria, Britainia Handiak erabaki dezakeen irteera eta Estatu eta hiritarren arteko ezberdintasunak dira Europar Batasunaren egitasmoak dituen erroka handienetako hiru.

Eta, bigarrenaz, EAJk espero du Batzar Nagusi honek hiritargo osoari erakutsi ahal izatea EAJ-PNV bere zerbitzura dagoen tresna dela. Nazio eraikuntzarako tresna, gizarte ongizaterako tresna, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko, euskara eta euskal kultura bultzatzeko tresna. Tresna eraginkorra eta zintzoa, euskal emakume eta gizonen alde lan egiten duena. EAJ-PNVk hausnarketan sinesten du, eztabaidan eta ekimen politikoan. Politika hurbila, gardena eta herritarrei atxikia praktikatzen du, horretan sinesten du, gizarte horren parte delako. Beraz, Batzar honi ekingo dio EAJk gizartearen eta bere zerbitzura dagoen alderdi politikoaren arteko hurbiltasuna sustatzeko erroka gogoan. Euskal gizartearen aurrerapen ekonomiko, sozial eta politikoaren zerbitzura dagoelako.

